

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

R 25/2011 ebazpena

6/2009 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 22an, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada batzordeburu jaunak, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese bokal jaunek osatzen dutenak, honako erabaki hau hartu du

ERABAKIA

(ERAKUNDEA 1), S.L. (B---- IFZ) erakundeak plazaratutako gatazkaren inguruan; horretan ukitutako administrazioak Zerga Administrazioko Estatu Agentzia eta Bizkaiko Foru Aldundia dira eta gatazka hori Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da 6/2009 espediente zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. 2009ko uztailaren 13an Arbitraje Batzorde honi aurkeztu zitzaion (ERAKUNDEA 1), S.L. (B---- IFZ) erakundearen –aurreratzean “erakundea”- ordezkariaren 2009ko ekainaren 30eko idazki bat eta bertan zenbait aurrekari eta zuzenbide oinarri azaldu zituen. Azken horien artean, erakundeak legitimazio titulu gisa aipatzen du Itun Ekonomikoaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.3. artikulua ezarritakoa (IEABA).

Idazkia amaitzeko, eskatzen da “Arbitraje Batzordeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean planteatzen den gatazkaren inguruan ebazteko prozedurari hasiera eman dakiola; prozedura hori Itun Ekonomikoari buruzko 12/2002 Legearen 7.bakarra.a) artikulua ezarritako lotura puntuaren aplikazioari buruzkoa da (lan atxikipenak, 2006ko ekitaldia, aipatutako legezko testuak eta Arbitraje Batzordeari buruzko Araudia onesten duen 2007/1760 Errege Dekretuak ezarritakoaren ildotik”.

2. Horrela aurkeztutako gatazkaren izapidea Arbitraje Batzordeak onetsi zuen 2010eko abenduaren 20an.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

3. Erakundeak idazki horretan azaldutako aurrekariak honako hauek dira laburbilduz:

- Zerga egoitza Badalonan (Bartzelona) daukan erakundeak lan atxikipenen autolikidazio guztiak aurkeztu zituen (2006ko ekitaldia) eta ondoriozko zerga zorra sartu zuen Zerga Administrazioiko Estatu Agentzian.
- Horren ondoren, erakundeak zenbait langileri zegozkien atxikipenen behin-behineko likidazio bat jaso zuen Bizkaiko Foru Aldunditik, horiek Foru Ogasunean sartzeko agin-deiarekin.
- Erakundeak likidazio horren kontrako berraztertze errekurtsioa jarri zuen eta ezetsia izan zen eta ebazpen horren kontra Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomiko Administratiboan erreklamazioa jarri zuen; organo horrek erreklamazioa ezetsi zuen 2009ko martxoaren 18ko ebazpen baten bitartez. Erakundeak eztabaidagai izan ziren diru kopuruak sartu zituen Foru Ogasunean.
- 2009ko maiatzaren 5eko idazkiaren bitartez, erakundeak ZAEARI eskatu zion langileei buruzko autolikidazio eztabaidagaiak zuzentzeko eta atxikipenak itzultzeko. ZAEAK ez zuen beren beregi ebatzi eskaera horren gainean eta uko egin zion 2010eko 31ra arte, hau da, erakundeak Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka azaltzeko idazkia aurkeztu eta ia urtebetera (ZAEAREN Kataluniako Ordezkaritza Bereziaren Ikuskapen Bulegoaren erabakiaren kopia prozedura honetan agertzen da ZAEAREN alegazio idazkiaren VI. eranskin modura, 184. orrialdea eta hurrengoak).
- 2009ko maiatzaren 12ko idazki bitartez, erakundeak Bizkaiko Foru Aldundira jo zuen eta, egokitzat jotzen zituen aurrekariak eta zuzenbide oinarriak azaldu eta gero, honako hau adierazi zuen:

"Ondorioz, bi administrazioak 2006. urteko ekitaldiko lan atxikipenen ordainarazpenerako eskudun direla adierazi dutenez, alderdi honek Foru Aldundiari eskatzen dio begirunez, kasu hau Arbitraje Batzordeari aurkezteko 1760/2007 Errege Dekretuak ezarritako prozeduraren bitartez, aipatutako organoak ebatz

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

dezan Ekonomi Itunari buruzko 12/2002 Legearen 7. artikulua ezarritako "langilea adskribatutako lantokia" izeneko lotura puntuaren aplikazioaren gainean".

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak aurreko eskaerari erantzun zion 2009ko ekainaren 9ko ofizio bitartez; bertan baieztatu zuen "Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Itunaren Arbitraje Batzordeari buruzko Araudiaren 13. artikulua 3. idatz-zatiak (abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsia) ezarritakoarekin bat etorriz, erakundeak berak aurkeztu behar ziola gatazka Arbitraje Batzordeari...".

4. EIABren 13.3. artikulua bidetik Arbitraje Batzordeak gatazkaren planteamendua izapideturik eta EIABren 15.1. artikulua ezarritakoaren arabera ukitutako administrazioei planteamendu hori jakinarazirik, alegazioak aurkeztu zituzten bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai ZAEAk.

5. Alegazioen izapidean Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzorde honi bidali zion, Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Politikako zerbitzuburuaren 2011ko otsailaren 8ko ofizio baten bidez, 2011ko urtarrilaren 24ko txosten bat, Ikuskapenaren Koordinazioaren zerbitzuburuari. Agiri horretan ondorengo ondorioa oinarritzeko aurrekariak eta zuzenbide oinarriak azaltzen dira:

"Azaldutakoari jarraiki, bidezkoa da Arbitraje Batzordeari eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena aitortzeko, betiere maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Ekonomi Itunaren 7.bakarra.a) artikulua ezarritakoaren arabera langile horien atxikipenen ordainarazpenari dagokionez, eta enpresari itzultzeko ZAEAn 2006ko ekitaldiko atxikipenen kontzeptupean sartutako kopurua".

6. Bere aldetik, ZAEAk 2011ko otsailaren 9ko datako alegazio idazki bat aurkeztu zuen, hil horren 11ko sarrera daukana, eta, bertan azaltzen diren egitezko aurrekariaren eta zuzenbide oinarrien arabera, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio gatazka hau onar ez zezan.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

7. Espedientea agerian jarrita, Bizkaiko Foru Aldundiak eta erakundeak alegazioak aurkeztu zituzten. Hark 2011ko maiatzaren 25eko Ikuskapenaren txosten baten bitartez egin zituen eta txostena Arbitraje Batzordeari igorri zaion 2011ko ekainaren 1eko ofizio bitartez. Aipatutako idazkian Bizkaiko Foru Aldundiak, alde batetik, lehenengo alegazioak berretsi zituen eta, beste aldetik, azaldutako arrazoietan oinarri hartuz argudiatu zuen bidezkoa zela “ZAEAk zergapekoaren aldetik beharrezko legitimazio baldintzen ez-betetzea zela-eta gatazkaren ez-onarpenaren gainean egindako eskaera ezestea” .

Erakundeak alegazioak aurkeztu zituen 2011ko ekainaren 14ko idazki bitartez, eta bertan Arbitraje Batzordeari eskatzen dio gatazkaren inguruan ebatz dezan.

II. ZUZENBIDE OINARRIAK

1. Gatazka honen gaia da zehaztea ukitutako bi administrazioetatik (ZAEA eta Bizkaiko Foru Aldundia) zein den eskuduna erakundeak 2006ko ekitaldian zenbait langileri ordaindutako etekinengatik atxikipenen ordainarazpenari begira. Hala eta guztiz ere, aldez aurretik ZAEAk gatazkaren ez-onarpenari buruz egindako alegazioa aztertu beharra dago.

Alegazio hori honakoan oinarritzen da: EIABren 13.3. artikulua zergapekoak gatazka aurkezteko baldintza gisa ezartzen du horrek izaera negatiboa izatea. Aipatutako manu horrek honako hauxe ezartzen du:

"Beste kasu batzuetan, ezein administrazioek bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin".

ZAEAk argudiatzen du gatazka hau ez dela negatiboa, positiboa baizik, izan ere, bi administrazioek eskatu dute eskumen eztabaidagai, eta, beraz, zergapekoak ez zeukan hori planteatzeko legitimaziorik. Gatazka positiboa egonez gero, bide egokia EIABren 13. artikulua 1. idatz-zatiarena da, izan ere honako hau ezartzen du: “Gatazka onartzeko

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

eskakizun moduan, beharrezko izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen tributu-administrazioak eskugabe irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatu, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez". ZAEAREN iritziz, Bizkaiko Foru Aldundiak estatuko Ogasunean sartutako atxikipenen ordainarazpenerako eskuduntzat jotzen bazuen bere burua, ZAEAREN inhibizioa eskatu behar zuen IEABAK ezarritako epeen barruan.

2. Alegazioei buruzko 2011ko maiatzaren 25ko txostenean Bizkaiko Foru aldundiak honako kontsiderazio hauek egin zituen ZAEAK egindako prozedura oztopoaren inguruan:

"Zergapekoak Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren (FAEA) 2009/04/28ko ezespren ebazpena jaso zuen (horixe da jakinarazpenaren data; izan ere, aipatu den bezala, ebazpenarena 2009ko martxoaren 18koa da) Bizkaiko Foru Aldundiaren likidazioaren kontra jarritako erreklamazioari zegokionez. Halaber, ZAEAREN aurrean autolikidazioaren berzuzenketa eskatuz jarritako berraztertze errekurtsioa ezetsi zuen Kataluniako ZAEAREN Ordezkaritza Bereziaren 2009/04/01eko erabaki baten bidez (erabaki hori 2007. urteko ekitaldiari dagokio; 2006. urtekoari dagokiona 2010eko maiatzaren 31n eman zen]. Ezespren ebazpen administratibo horien aurrean zergapekoaren egoera eskumen ezari buruzko aitortpen baten berdina edo baliokidea da eta horrela hartu beharko litzateke EIABAREN 13.3. artikuluko bitartez gatazka automatikoaren irispenera dagokionez.

Zerga likidazio negatiboak edo zergen itzulpena egonez gero, errekurtsioak ezesten dituzten ebazpen administratiboak eta zergapekoen sarrera ez-egokien erreklamazioak edo eskaerak eskumen faltaren adierazpenen baliokidetzat hartu behar dira Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.3. artikuluko exijitutako gatazka automatikorako baldintzak betetzeko ondoretarako. Hori horrela ez balitz, zergapekoek Arbitraje Batzordera jotzeko daukaten sarbidea itxiko litzateke eta bide judizialera jotzera behartuta egongo lirateke, administrazioen arteko eskumen eztabaida bati darion kalte baten inguruan ebazteko. Nahikoa izango litzateke Administrazio baten jardura eza zergapekoen sarrera automatikoa saihesteko,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

betiere eskumen bikoiztasuna ukatzeko egintzetatik eratorritako kalteen hainbat eta hainbat kasutan.

Arbitraje Batzordearen 13.3 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin.

ZAEaren interpretazio murriztaileak zergapekoek Batzordearen arbitrajera daukaten sarbidea ekidindo luke zerga likidazioen bikoiztasun kasu ugarritan, zergapekoari baliabide bakar gisa bide judiziala utziz, nahiz eta hori izan Arbitraje Batzordearen existentziak berak ekonomi itunean saihestu nahi duena".

(azpimarra jatorrizkoan dago)

3. Ezin etor gaitezke bat Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka hau EIABaren 13.3. artikulua bidez "automatiko" gisa onartzeko egindako argudioekin. Foru Aldundia ahalegintzen da gatazka hori negatibo gisara eratzeko, eta horretarako ukitutako administrazioen bi ezespen ebazpenak aurkeztu ditu, Bizkaiko FAEarena eta ZAEaren Bartzelonako Ordezkaritza Bereziarena. Baina ebazpen horien ezespen izaerak ez dakar berekin atxikipen eztabaidagaien ordainarazpenerako eskumena ukatzea (eta horrek sorraraziko luke gatazka negatiboa); aitzitik, ebazpenek egintza aurkaratuak baieztatzen dituztenez, horiek emateko eskumena berresten dute.

Gauzak horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak behin-behineko likidazioa egin duenez gero, horien ordainarazpenerako eskumena baieztatzen du ageriko moduan eta baieztapen hori berresten du haren kontra jarritako berraztertze errekurtsioa ezestean eta Bizkaiko FAEak ere baieztatzen du berraztertze errekurtsioaren ebazpenaren kontrako erreklamazioa ezestean. Eskumenaren baieztapena ezespen ebazpen horien oinarria da, hain zuzen ere. Are gehiago, Bizkaiko Foru Aldundiak eskumen hori beren beregi baieztatzen du Arbitraje Batzorde honi aurkeztutako 2011ko urtarrilaren 24ko alegazio idazkian, eta alegazio horiek berresten ditu 2011ko maiatzaren 25ekoan ere.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

Gauza bera esan beharra dago honakoari buruz: ZAEAk autolikidazioak zuzentzeko eta sartutako kopuruak itzultzeko eskaerari uko egitearen kontra jarritako berraztertze errekurtsua ezesteko emandako erabakiari buruz, hain zuzen ere. Horrela bada, Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako 2009ko apirilaren 1ekoa oinarritzen den arrazoiak, 2007ko ekitaldiari egokitu arren, zuzenduta daude egiaztatzeraz, Ekonomi Itunaren lotura puntuak ikusita, Estatuaren Administrazioak daukan eskumena atxikipenen ordainarazpenari dagokionez. Berdina adierazi behar da 2006. urteko ekitaldiari men egiten dion 2010eko maiatzaren 31ko erabakiari dagokionez.

Azaldutako arrazoi berdinak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiak, zerga likidazio negatiboen edo zerga itzulpenen kasuan, emandako honako argudio hau ere ez da sarkorra: egin-eginean ere, zergapekoaren errekurtsuak ukatzen dituzten ebazpenak edo sarrera desegokien eskaerak eskumen faltaren adierazpenen baliokidetzat hartu behar direla EIABAREN 13.3. artikularen ondorioetarako. Bakar-bakarrik onar daiteke baliokidetzat likidazio negatiboa edo itzulpen baten ezespren erabakia administrazioaren eskumen faltan oinarritzen denean; kasu horretan, likidazio negatibo horren kontra edo itzulpena ukatzen duen ebazpen horren kontrako errekurtsua ezesten duen ebazpenak berresten du aurkaratutako egintzaren administrazio egileak baieztatutako eskumen falta. Errekurtsu baten ezespren ebazpen batek ez du egintza aurkaratuaren zentzu positibo edo negatiboa aldatzen, eta egiten duena da egintza hori berrestea; errekurtsu baten baiespen ebazpen batekin bestaldera gertatzen da, zentzu hori aldatzen baitu baiespen arrazoiari dagokionez (adibidez egintza eman zuen organoaren eskumena baieztatuz, hori *ratio petenti* baldin bazen).

Modu analogoan, itzulpen eskaera baten inguruko ebazpen baten zentzu positibo edo negatiboa, hori eman duen administrazioaren eskumenari dagokionez, ez dator ezespren edo baiespen izaeratik baizik eta bere oinarritik: ezespren ebazpen batek zentzu positiboa izango du (hau da, administrazio horren eskumena baieztatuko du) horrek eskumen hori duelako oinarria azaltzen duenean. Horixe da ZAEAk bertan sartutako atxikipenen itzulketa ukatzeko kasu honekin gertatzen dena. Alderantziz, ezespren ebazpenak zentzu negatiboa izango du haren oinarria administrazioaren eskumen eza denean. Azken hori da

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
6/2009	R25/2011	2011/12/22	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Lan etekinen atxikipenak. Lantokiaren kokapena. PFEZ</i>

BEZ itzultzeko ukatze ebazpenekin gertatzen zena eta ebazpen horiek eskumenen gatazka negatiboen zenbait planteamendu ekarri zizkioten Arbitraje Batzordeari, horietariko batzuk EIABAREN 13.3. artikulua bidetik. Bi kasuetan ebazpenak itzulketa ukatzen duen arren, egintza eman zuen administrazioaren eskumenari dagokionez daukan esanahia, eta beraz sor dezakeen gatazkaren izaera positibo edo negatiboari dagokionez, kontrakoa da.

Arbitraje Batzordearen Araudiak zergapekoei bakar-bakarrik ematen die legitimazioa gatazka negatiboa egonez gero, betiere bere 13.3. artikulua arabera. Xedapen horixe da, hain zuzen ere, zergapeko horiek Arbitraje Batzarrera daukaten zuzeneko sarbidea saihesten duena gatazka positiboa denean, oraingoan bezala. Partikularrek gatazkak planteatzeko duten legitimazio falta (aipatutako salbuespenarekin, Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak ezarri du 2006ko abenduaren 12ko epaian (5031/2001), 2011ko otsailaren 3ko epaian (266/2009) eta 2011ko apirilaren 7ko epaian (29/2007).

Gatazka positiboa egonez gero, ez da nahikoa administrazio baten jardura falta Arbitraje Batzordearen jarduketa ekiditeko; izan ere, beharrezkoa da beraien eskumenen gaineko iritzi kontrajarriak dituzten bi administrazioak gatazka ez planteatzea EIABAREN 13. artikulua 1. atalaren bidez. Hori gertatzen bada, kasu honetan bezala, Arbitraje Batzordearen Araudiak ez du irtenbiderik eskaintzen, zenbait kasutan, hori *lege ferendari* begira desiragarria izan arren.

Horrenbestez, gatazka hau ez onartzeko beste aukerarik ez dago. Ondorio horrek ez-beharrezko egiten du eztabaidaren muina aztertzen hastea.

Hori guztia dela bide, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

Gatazka hau ez onartzea.